

Antxiñako fotografixia

Benediktinak

Orain **Elkar Hezi** izeneko ikastetxietako bat dana garai batian **Santa Eskolastika** moduan ezaguketan geben. Lehenago, barriz, **monja frantsesen** edota **Zarateko monjen koleji-xua** esanda entenditten giñan. Izan be, XX. gizaldixaren hasieran Frantziatik hainbat ordena erlijioso etorri xakun Oñatira, Euskal Herriko eta Espaiñako leku askotara letxe. Irakaskuntzan jarduten euen horreittako asko: hona, esaterako, **maristak** heldu ziran itxi barri zan unibersidade zaharrera, herriko mutiko gehixenen mai-xu izateko; eta ixa batera aillegau ziran monja **beneditarrak** eta **Nevers-ekuak** be, neskatillai eskolak emuteko. Aurreko gizaldittik egozen Oñatin **karidadeko monjak**, honeik be Frantziatik etorritta, unibersidade ondoko ospittalian; laister kokatu ziran inguru horreittan jatorrixa Italian eukain **agustiño-laterandarrak**. Azken bi ordena honeik be irakaskuntza-munduan jardun daue denpora askuan gure herrixan.

Frantziako III. Errepublikak ezarritako lege laiko zorrotzetatik igesik, monja beneditar frantsesak **Zaratekuan** jarri zittuain euren bizilekua eta eskolia, hau da, San Antue kalia, Maiazaren 1eko plazatxua eta Bakardadeko Amaren kalia ikuketan dittuan antxiñako etxetzar horretan; gaztiaguak konturatu dittezen, orain **Aker** tabernia daguen etxiaren buelta osuan. Hor 25 bat urte pasau eta gero, Lezesarri auzora aldatu ziran 1928xan monjak eta koleji-xua: **Altzibar Azpiko** lur-sailletan jaso euen **monasterixo** barrixa **San Lorentzo** izenarekin, Altzibar baserrixa kamiñuaz bestekaldera eruanez. Harrezke-ro, paraje horretan jarraiketan daue monasterixua nahiz koleji-xua, hori bai, urtien buruan beste zati barri batzuk erantsitta eta orain ikastetxeko irakasle gehixenak sekularrak dirala.

Ba, gaurko argazki honetan agerketan diran ume-ikasliak eta monja-maistrak Lezesarriko benediktinen koleji-xuaren atzekaldian dagoz. Hona euren izenok goittik behera eta ezkerretik eskumara:

4. illaran, goixenian: **Rosarito Zarraoa**; **Rosarito Maiztegi**; **Tere Arkauz**; eta **Maixabel Galfarsoro**.

3. illaran: **Sor Marie Angèle**; **Mère Nativité**; eta **Sor Bernardita**. Frantsesak lehenengo bixak eta bilbotarra hirugarrena.

4. illaran: **Kontxita Arregi**; **Marie Irène Alengry Erostege**, oñatiar jatorriko frantsestxua; eta **Arantxa Zubizarreta**.

5. illaran, lurrian jasarritta: **Mertxe Ziordia**; **Jesusa Guridi**; **Teretxu Gorbea**; **Aurorita Manzanedo Atxa**; eta **Marixi Arregi**.

J. E.

Fotografixia Rosarito Maiztegi zanak itzittakua da eta 1942xan atara zan. Argibidiak, aldiz, Rosaritok berak nahiz Karmen Ituarte, Maixabel Elortza, Axun Arzuaga, Joxe Antonio Billar eta Mari Karmen Galdosek samurtu doskue. Milla esker danoiri!

